# munduak guztiontzat beharko luke

## aspanogi elkartea

Ane pirata ospitalera joan da gaur, Aspanogikoei laguntzera. Hartzak neguan kobazuloan lozorroan egoten diren bezala egon behar du Marimok isolamendu gelan indarrak pilatzeko. Ondoan dauka betiama.




ASPANOGIKOEI ESKER, NIRE LAN GARRANTZITSUENA MARIMOREKIN BATERA BARRE EGITEA DA. IZAN ERE BATZUETAN OSPITALEAN JENDEARI AHAZTU EGITEN ZAIO BARRE EGITEA.
HORI BAI DELA BIRUS ARRISKUTSUA! KAR, KAR, KAR...
KAR, KAR, KAR...
Marimo eta ama agurtu ondoren, Ane badoa gelatik. Irtetean, sorpresa bat hartu du.
PATAKON! ZERTAN ARI ZARA HEMEN?
HEZUR-MUINA EMAN NAHI DUT ETA HORRETARAKO ODOL ANALISIA EGITERA ETORRI NAIZ.
MARIMORENTZAT EMAN NAHI DUZU, EZTA?
EZ, EZ, EZIN DA PERTSONA JAKIN BATENTZAT EMAN. HEZUR-MUINA EMATEN DUZUNEAN MUNDU MAILAKO BANKU BATERA JOATEN DA ETA BEHAR DUENAK HARTZEN DU.



EDONORK? BERDIN DA AFRIKARRA EDO EUSKALDUNA IZAN?
EDONORK EZ, EMATEN DUENAREN ETA HARTZEN DUENAREN AMA ZELULEK OSO-OSO ANTZEKOAK IZAN BEHAR DUTE, BATERAGARRIAK IZAN BEHAR DUTE.
Hezur-muineko zelulak bateragarriak direnean, hartzailearen gorputzean primeran bizi daitezke eta gaixoa senda daiteke.
EZ DA HAIN ERRAZA ANE. LEHENDABIZI ODOL ANALISIA EGITEN DIZUTE ZER NOLAKO HEZUR-MUINA DAUKAZUN JAKITEKO. GERO, ZUREKIN BATERAGARRIA DEN NORBAITEK HEZUR-MUINA BEHARKO BALU, BERRIZ DEITU ETA ORDUAN HARTZEN DUTE ZURE HEZUR-MUINA.
EDERKI. NIK ERE EMANGO DUT HEZUR-MUINA.
BAI, HILABETEETAKO EDO URTEETAKO KONTUA IZAN DAITEKE.
Hezur-muina ematea ez da zaila, baina ez da odola ematea bezain erraza. Ebakuntza txiki bat egin behar da eta egun pare batean ospitalean egon behar da.




Gaixotasunarentzat denak gara berdinak, ez gara hangoak edo hemengoak. Hezur-muina ematean gauza berdina gertatzen da, denok bihurtzen gara elkarri laguntzeko prest dauden mundutar.

# ASPANOGI

Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea da. 1996. urtean eratu zen eta 1998. urtean hasi zen martxan, lau familiaren bultzadari esker.





Bere helburu nagusia minbizia duten haurren gurasoen egunerokoa erraztea da. Arazo horiei norberak eta bakarrik aurre egitea zaila eta nekeza da eta horretarako dago elkartea.

Egoera larri horren aurrean familiak bakarrik ez sentitzea da elkartearen egitekoa, gurasoen buruhauste bakarra bere seme-alaben irria izan dadin.

Euskal Herriko herrialde guztietan daude Aspanogi bezalako guraso elkarteak.

**TXARA eraikuntza, 1- Gizagune, 3. Bulegoa**
**Zarategi pasealekua, 100. 20015 Donostia**
**Telefonoa eta faxa: 943245620**
**www.aspanogi.org**
**info@aspanogi.org**